

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

35/2017 Foru Agindua, urtarrilaren 25ekoa, onartzen duena aire zabaleko pintura azkarraren San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria lehiaketarako deia 2017rako

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak egoki deritza, Araban, 2017an, San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren egunak ospatzeko jaiak direla-eta aire zabaleko pintura azkarraren XXIV. lehiaketarako deia egiteari.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea aire zabaleko pintura azkarraren San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria lehiaketarako 2017ko deia; sariak ordaintzeko, 1.250 euro bideratuko dira.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastuen aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.05.73.02.226.09.06 (xedapen erreferentzia: 105.263).

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 25a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Aire zabaleko pintura azkarraren XXIV. San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria lehiaketarako 2017ko deia

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren egunak ospatzeko jaiak direla eta, aire zabaleko pintura azkarraren XXIV. lehiaketarako deia egin du.

OINARRIAK

Lehenengoa. Parte hartzaileak

Ondoko oinarriak betetzen dituzten pertsonak parte har dezakete.

Bigarrena. Izena ematea

Izena lehiaketaren egunean bertan, 2017ko maiatzaren 1ean, eman ahal izango da, 09:00etatik 10:00etara, Estibalizko Andra Mariaren Santutegiko harrera zentroan, eta bertara eraman beharko dira euskarriak, zigilua jartzeko. Euskarriek zurrinak eta bete gabeak behar dute izan. Parte hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango du.

Hirugarrena. Teknika eta gaiak

Estiloa eta teknika libre izango dira; gaiak, berriz, Santutegiko inguruarekin edo monumentu multzoarekin izan beharko du zerikusia. Lanak maiatzaren 1eko 16:30etik 17:00etara aurkeztu beharko dira.

Laugarrena. Epaimahaiaren osaera

Epaimahaia arte plastikoekin lotutako pertsonen osatuta egongo da, zeinak Euskara, Kultura eta Kirol Sailak izendatuko dituen.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sari hau emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izango du, eta eduki beharreko gaitasuna, gaitasuna eta prestakuntza edukiko dute kideek. Lege horren beraren arabera, ordezkaritza orekatua dela ulertuko da, baldin eta lau kide baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan bi sexuek gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badute; gainerakoetan, bi sexuak ordezkaturik badaude.

Epaimahaiak sariak eman gabe utzi ahal izango ditu, bere iritziz, lanek ez badaukate behar besteko arte baliorik.

Epaimahaiaren ebazpenaren kontra ezingo da errekurtsorik jarri.

Bosgarrena. Sariak

Sari hauek ezarri dira:

Lehenengo saria.....500 euro

Bigarren saria.....350 euro

Hirugarren saria.....250 euro

Laugarren saria, haur modalitatekoa, 16 urte baino gutxiagokoentzat da: 150 euro, pedagogi eta didaktika materialean.

Dirutan ematen diren sariak dagokien atxikipena izango dute.

Saritutako lanak Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren esku geratuko dira, eta egileek horien gaineko jabetza eskubidea galduko dute.

Seigarrena. Zuzkidura

Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastuen aurrekontuko partida honen kontura egingo da: 70.1.05.73.02.226.09.06 ("Kultura sorkuntza eta jarduerak suspertzea").

Zazpigarrena. Erakusketa

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak lehiaketaren egunean egongo dira ikusgai, 17:00etatik 19:00etara, Estibalizko Andra Mariaren Santutegiko harrera zentroan.

Zortzigarrena. Sariak banatzeko ekitaldia

Ekitaldia lehiaketaren egun berean egingo da 18:30ean, Estibalizko Andra Mariaren Santutegian.

Bederatzigarrena. Lanak itzultzea

Behin erakusketa amaituta jaso ahal izango dira lanak.

Erakusketa amaitu eta hurrengo egunetik hiru hilabeteko epean jaso ez diren lanak Arabako Foru Aldundiaren esku geratuko dira.

Hamargarrena. Oinarriak onartzea

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri guztiak onartzea eta haiei men egitea.

Hamaikagarrena

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baino ez du deialdian sor edo ager daitezkeen auzi guztiak ebazteko eskumena.

Indarreko araudia aplikatuko da, eta, zehazki, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa.